

## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK:

Kanalen bitartez lortzen duguna gure proiektua merkatu-segmentuetara iristea da, gure balio-proposamena helarazteko. 15-17ko eta 20-24 adin tarteko ikasleengana helarazteko hain zuzen, oso garrantzitsua da ikasle hauek gure enpresaren berri izatea, haien etorkizuna argitzeko.



Komunikazio kanalari dagokionez:

Gure zerbitzua saltzeko eta ezagutarazteko lehenik eta behin **web orri** bat sortuko dugu, aurkezpen batekin, gure balio proposamena azaltzeko asmoz, hau, da, azalduko dugu BIGOKA S.L enpresa garela eta ikasleei zuzendutako bi zerbitzu eskaintzen ditugula, lehenik eta behin egun batez enpresa batean pasatzeko eguna, lan-orduak eta gure lan giroa ikusteko eta bigarrenik unibertsitateko ikasleei praktikak egiteko enpresak bilatzen ditugula.

Horrela ere **ikastetxeetan** publizitate aurkezpenak eskainiko ditugu gure enpresa ezagutzeko eta unibertsitateetako web orrietan gure link-a agertuko da, gutaz jabetzeko.

Jarduera hobeto ezagutzeko, sare sozialen bidez informazioa zabaldu dezakegu, instagram, facebook eta twiterren bidez.

Salmenta kanalari dagokionez, **interneten** bidez egingo da, eta oso zerbitzu pertsonala denez, prezioa ezberdina izango da segun eta zein aukeratzen duzuen.